



XURDIN IPOTXAREN GABONETAKO DOINUAK

Ibarran larunbatean eta Alegian astelehenean izango dute ikusgai gaztetxoek 'Xurдинen Gabonetako Kontzertua' ,7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-12-24**

VIURTEA 1.592.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Sahararrei laguntzeko janari bilketa abian da eskualdean

TOLOSALDEA 'Piztu itxaropena' lelopean, udaletxeetan, supermerkatuetan edota Merkatu Txikian utzi ahalko dira elikagaiak 6

CARLOS PEÑA
IGERILARIA

«Probarako nere burua ondo prestatu nuen arren, oinek asko sufritu zuten»



EITB

TOLOSA EITBk antolaturiko elkartasun maratoiaren baitan, Bilboko itsasadarrean 24 orduz egin zuen igeri 2



Villabonako Zunbeltz eta Zizurkilgo Urkamendi elkarteko kideak, atzo. I. GARCIA

BEREZITASUNEZ BETETA DATOR 25. URTE ZAHAR EGUNEKO KROSA

VILLABONA-ZIZURKIL Zunbeltz eta Urkamendi elkarteak antolatzen dute; opariak banatuko dituzte eta webgunea ere jarriko dute 5

**Abenduak 26
Larunbata • 22:30**



**ATE
JOKA**
antzerkia

**Villabonako
Gurea antzokian**

Villabonako Udala
Kultura Batzordea



AIZTONDO BAILARA
GIZA ENKUBIDE GUZTIEKIN ALDE.

Abenduaren 31
arratsaldeko 7tan
Villabonako plazatik
Zizurkilgo plazara



HITZAren hurrengo alea **abenduaren 30**ean argitaratuko da.

**Ongi
pasa!**



Alpino Uzturre elkarteko eski taldea aurreko denboraldi batean. HITZA

Alpino Uzturreko eski taldea hasi da lehian

Kirola » Taldekide batzuk ez dute atsedetik izan udan, kontzentrazio ugaritan parte hartuz; mendiko eskian ere ariko dira Alpinoko batzuk.

JOXEMISAIZAR

Elurra eta eski konpetizioa hilabete honetan iritsi badira ere, Alpino Uzturre elkarteko eskiazaileak (aurten hamar lagun ariko dira konpetizioetan) aspaldi hasi ziren denboraldia prestatzen, maiatzaren bukaeran hain zuzen ere. Harrez gero, Espainiako selekzioaren hainbat kontzentrazioetan izan dira Alpinoko Joseba eta Imanol Rojo, Xabier Saizar eta Erlantz Gonzalez. Eskuia, rolleskia, mendia, korri, gimnasioa, bizikleta konbinatzen dituzte kontzentrazio horietan. Eta etxean dauden ere bere entrenamendu taularekin jarraitzen dute lanean.

Apirila izan da benetako oportetako hilabete bakarra aurten A mailako selekzioan dagoen Joseba Rojo seniorrarentzat. Ekainaren hasieran izan zuten lehen kontzentrazioa, Stelvion (Italia). Handik aurrera hamar egun etxean eta astebete kanpoan (Italian edo Austriari) egin ditu elurra iritsi arte. Selektzioa euskaldun bakarra da. Azaroan Finlandian eta Italian izan da konpetitzen. Munduko eta Europako Kopako probetan ari da parte hartzen. Hirugarren urtea da nazioarte mailan konpetitzen ari dela, baina lehena senior bezala. Aurten sub 23 mailako Munduko

Txapelketa izango du Frantzia. Universiada ere izango da Txinan, hain justu, baina oraindik ez daki joangoden.

Bere anaia Imanol juniorra da eta B mailako selekzioan dago. Ekainaren bukaeran hasi zen kontzentrazioekin. Aran bailaran, Kantabriari, La Molinari eta Baisselancen izan da kontzentratuta. Europako Kopako probetan ariko da aurten.

Rojo anaia abenduaren 18tik 21era St Ulrich (Austria) izan ziren eta nazioarte mailan dituzten hurrengo lasterketak hauek dira: urtarrilaren 3 eta 4ean Meaudren (Grenoble-Frantzia), eta hil bereko 10 eta 11n Oberdorf (Alemania).

Xabier Saizar kadetea FOJErako (Europako Gazteariaren Olinpiar Jaialdia) selekzioan dago. Tig-nesen (Frantziako Alpeak) kontzentratuta izan da Erlantz Gonzalezekin batera abuztuaren eta abenduaren 18tik 21era St Ulrichen (Austria) izango da konpetitzen kadete mailako lasterketan. Hurrengo probak, tarteka egiten dieten test batzuen arabera erabakitzen da.

Mendiko eskian ere bai

Mendiko edo trabesiako eskia bul-tzatzen ari da azkenaldi honetan

Euskal Mendi Federazioa. Horretan ere aritzen dira Alpino Uzturre elkarteko eskiazaile batzuk, iraupen eskian ere aritzen direnak. Adibidez, Erlantz Gonzalez aurtengoa ariko da mendiko eskian iraupenean baino. Aitor Igarategik ere biak txandakatuko ditu. Eta Xabier Saizarrek iraupeneko konpetizioak uzten dizkion tartekak aprobetxatuko ditu mendikoan ere lehiazteko. Luz Ardidenen kontzentrazio bat antolatu zuten federazioak eta bertan elkarteko batzuk izan ziren.

» TALDEKIDEAK

- **Seniorrak.** Txiki Plazas, Peio Gorostegi, Aitor Igarategi, Xabier Murgia eta Joseba Rojo.
- **Emakumeak.** Lourdes Irazusta.
- **Juniorrak.** Imanol Rojo eta Erlantz Gonzalez.
- **Kadetea.** Xabier Saizar.
- **Infantila.** Iñaki Aldanondo.

» ESTATUKO EGUTEGIA

- **Abenduak 28.** Mayencos Irekiera Trofeo (Somport).
- **Urtarrilak 24-25.** Euskadiko barkarkako Txapelketa (Candanchu).
- **Otsailak 1.** Marxa Beret (Baqueira-Beret).
- **Otsailak 7.** Euskadiko Txapelketa errelebo.
- **Otsailak 28-Martxoak 1.** Gipuzkoako Txapelketa (Somport).
- **Martxoak 10-15.** Espainiako Txapelketa (Puigcerda).

«Prestatuta joan nintzen, baina oinek asko sufritu zuten»

CARLOS PEÑA » Igerilaria

Tolosa » Bilboko itsasadarrean 24 orduz etenik gabe igeri egitea lortu berri du; urak 8 gradu besterik ez zituen.

REBEKA CALVO

Carlos Peña igerilari tolosarra aski ezaguna da, jada, gure artean. Erronka desberdinak egin ditu, azkena orain gutxi egin zuen; buruko gaitzei eskainitako EITBko elkartasun maratoiaren barruan 24 ordu eman zituen Bilboko itsasadarrean igeri. Hotz handia pasa zuen, bi oinetako behatzetako puntetan ere sentsibilitatea galdu duelarik. Baina hau ez da nahikoa tolosarra kikitzeke, seguruenik datorren urtean munduko lakurik altuenean, Tibeten 5.000 metrora dagoenean, ere erronka berri bati egingo dio aurre.

Uraren temperatura 8 gradutan zegoen eta zuk 24 ordu eman nituen bertan, nola gogoratzen duzu orain abentura hura?

Eta beste arazorik ere bazegoen; atera aurretik, hotzean, trajea zuloa egin nuela. Oso traje delikatu da eta jartzerakoan ere komeria ugari ibiltzen ditut beti, egia esan. Irteera hamarretarako hitzartu genuen eta ni 09:30ean edo iritsi nintzen hara eta guztiek azpimarratu zuten ura 8 gradutan zegoela. 24 ordutan igeri egiteko oso temperatura hotza da.

Baina ez zinen kikildu eta aurrera egin zenuen.

Noski eta arazo gehiago ere bage-nituen, izan ere ibaia oso altu zegoen eta indar handia zuen.

Pluralean hitz egiten duzu, atzean izaten duzun ekipoa ere oso garrantzitsua da, ezta?

Ezinbestekoa. German Garcia lan-kidea izan zen ontziko buru, Jesus Ramirez piragusta eta kasu honetan Bilboko suhiltzaileen talde bat ere izan nituen nirekin. Suhiltzaileekin ordu bete edo egon ginen eta gero ia lantaldea geratu ginen. **Uste baino arazo gehiago izan ze-**

nituen, beraz, aipatu ibaiaren indarra, hotza... eta botaka ere egin zenuen.

Getxo parean nengoela han inguruan dagoen hondartza txiki batean geratu eta trajean konponketa txiki bat egin behar izan genuen. Izan ere, hotz asko sartzen zitzaiala ikusi nuen eta konponketa bat behar nuela. Arratsaldeko hiruretan edo, gainera, olatuek ez zitidaten sartzen uzten eta Germanek Getxoko badian sartzeko esan zidan, horrela itsasoa igotzen hasteko, eta bide batez niri ere lana pixka bat errezteko. Asko kostatu zitzaidan, ertzetik joan behar izan nuen... Ibaiak indar handia zuen. Eta bai, Guggenheimera iristeko 4 km edo falta zirela hasi nintzen botaka. Asko harritu ninduen honek, azken hiru urteetan edo ez dut botaka egin eta. Salda eta likido beroak hartu behar izan nituen, ondorioz, gaueko hamarretan edo, hain justu Germanen txanda bukatu eta Ifi-go Agirrezabala, Yolanda Mintegi eta Realeko medikua sartu zirenean. Berriz ere jaisten hasi nintzenean hain nintzen goerari buelta ematen.

Hotz handia jasan behar izan zenuen, hori izan al zen okerrean?

Bai, 24 orduak bukatzerakoan aurrerapena erabat handituta neukan, hotz handia... eta bi oinetako behatzetako puntetan sentsibilitatea galdu dut. Preparatuta joan nintzen, baina oinek asko sufritu zuten azkenean. Orain zain nago, ea denbora bat pasata sentsibilitatea hartzen dudan berriz ere.

Ez da lehen aldia 24 ordu ematen dituzula igeri, baina oraingoan EITBko elkartasun maratoiarekin bat egiteko aukera izan duzu.

Batekik, erronka pertsonalaren eta bestetik, era honetan laguntzeko aukera izan dut, oso pozgarria dena. Denok dugu inguruan buruko gaitzen bat duen norbait eta pertsona hauei guztiei laguntzeko aukera izateak ere asko motibatu ninduen. Niretzat benetan garrantzitsuena maratoirako dirua bil-tzea zen.





Galarraga, Renobales, Aramendi, Galarraga eta Lazkano, Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketako finala irabazi ondoren. PATXI RENOBALÉS

Renobalesentzat Probintziala eta Eliteko binakako finalak

Pilota » Zazpi-Itturri eta Aurrera-Saiatz pilota eskolek Euskadiko Txapelketa jokatu dute urtariletik aurrera.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan Renobalesek (Aurrera-Saiatz pilota eskola) eta Lopezek eskuz binakako elite mailako finala eskuratu zuten Onsalo eta Jauregiren aurka 22-11 irabazi ondoren. Zumarragan jokatu zuten. Partidan moteldutako pilota bat erabakiorra izan zen.

Hala ere, «lehen zatia dotorea izan zen». Tanto «politik» tarteko, lau pilotariek euren maila eman zuten. Bigarren zatian, partida osoan erabilitako pilota bakarra moteldu zenean, partidak behera egin zuen. Gerora, txapeldu gertatu zirenak «eroso» eta Onsalo-Jauregi «ezinean».

Ez zituzten saskian zeuden beste hiru piloten bizitasuna probatu. Ondorioz, Onsalo pazientzia galdu eta pilota asko huts egin zituen «txapelak nolabait oparitu».

Seniorren arteko finala Aurrera-Saiatzentzat

Zazpi-Itturri eta Aurrera-Saiatz arteko final bat ere jokatu da asteburu honetan, seniorren mailan, hain zuzen. Gipuzkoako Kluben

arteko Txapelketaren baitan izan zen. Txapela Tolosa eta Bidegoiangoztat izan da, 22-18koarekin. Kasu honetan, jokalaririk Renobales-Galarraga eta Elurbe-Arzelus izan ziren, askotan elkarrekin aritutakoak. Partida, «gogorra», 645 pilotakadarekin.

Hasieran Amezketakoak erraz aurreratu ziren markagailuan, 13-3 urrundu baitziren, baina «sartzen joan ziren gero Renobales eta Galarraga» eta momentu batean 16-13 jarri ziren. Batek baino gehiagok «gaizki» pasa zuten Bergaran jokatu zen finalean.

Zazpi-Itturrik hiru final jokatu ditu asteburuan: kadeteen mailakoan 22-12 galdu zuen, baina hala ere, Euskadiko Txapelketan aritzeko txartela lortu du. Beste finala eskuz banaka izan zen seniorren mailan eta 17-22 galdu zuen Leundak. Burlatan ere beste final bat jokatu dute Zazpi-Itturrikoek, baina hau ere galdu egin dute. Gaur DV Txapelketako finala jokatu du Arzelusek (jubenila): Esan beharra da, pilotari hau 5. finalera iritsi dela.

Orain Euskadiko Txapelketara

Urtariletik aurrera bai Aurrera-Saiatzko eta baita Zazpi-Itturriko taldeak ere Euskadiko Txapelketan ariko dira, Gipuzkoako Probintzian lortutako emaitza onen-gatik.

Laburrak

Bonberenearen XI. urtean zuzenekoak eta zinea

TOLOSA » Bonberenearen XI. urterrena da eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte astean zehar. Etzi Angelays, Peachy Joke eta Agoraphobia taldeen kontzertuak izango dira 22:30etik aurrera. Larunbatean Attabala Danbolina gaua izango da 22:30ean eta bertan Fernalia, T eta Maite Arroita Jauregi & Iborng-k hartuko dute parte. Igan dean zine elkarrizketa egongo da 18:30ean: *Requiem por un sueño* eta *El pico* filmak jarriko dituzte.

Etzi hasiko den Shanti Trofeoako datuak, dendan

TOLOSA » XXVII. Eguberrietako Shanti Txapelketa etzi hasiko da. Taldeak, egutegia, ordutegia eta beharrezko datuak Shanti Kirolak dendan jarri dituzte edonork ikusi ahal izateko.

Euskal preso eta iheslarien aldeko kalejira egingo dute

ASTEASU » Eguberri bezperan, urtero bezala, euskal preso eta iheslarien aldeko kalejira egingo dute Olientzerorrek batera Asteasun. 18:30ean plazatik aterako dira eta etxetz etxe joango dira.

Etziko bilkuran UEMAKo estatutoen onarpenaz

AMEZKETA » Etzi 20:30ean Amezketako udaletxean ezohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, gai hauek aztertuko dituzte: Landagipuzkoa 32, eraikin balioanizten proiektuetarako diru laguntzak eskatzea, irisgarritasun plana Adir enpresari esleitzea, UEMAKo estatutoak eta bazkietza onartu, Tolosaldea Garatzen elkartearen estatutoak eta bazkietza onartzearen proposamena ere egingo da. Astean zeharreko bileren berri emango dute.

Eguberrietako elizkizun bereziak

TOLOSA » Datorren larunbatean famulien meza izango da Tolosako Santa Maria parrokiari. 19:00etan izango da eta Jesusen jaiotza gogoratuko dute eta Familia Santuaren jai ospatuko dute.

Musika Bandaren Gabonetako kontzertua

TOLOSA » Tolosako Musika Bandak Gabon gaueko kalejira joko du gaur 21:00etan hasita. Felipe Gorriti plazatik abiatuko dira eta Plaza Zaharrera joango dira, Tolosako koroak eta Musika Banda bilduz.

Euskal produktuak erosteko aukera zabalduz

TOLOSA » Gabonetan euskarazko produktuen salmenta pizteko kanpainajari du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzak, Elkar Fundazioarekin batera. Tolosan, hilaren 30ean (10:00etan ireki) eta 31n (20:00etan itxi) izango da Triangeluloan. Gipuzkoako 39 saltokitan euskarazko produktuak eskuratzeko aukera izango dute herritarrek. Aurten, produktuok herritarrengana hurbiltzeko etxetxo bat ibiliko da herriz herri.

Abenduko 'Tolosa kantari' larunbatean izango da

TOLOSA » Larunbatean *Tolosa Kantari* izango da Tolosako Alde Zaharreko kaleetan, 12:00etatik aurrera, Tontokaletik abiatuta. Euskal kantu bira honetan, Gabon kantak ere abestuko dituzte.

Guraso elkartearen saskia 894rentzat izan da

BIDEGOIA » Bidania-Goiazko Ernio guraso elkarteak urtero Gabonetan saski bat prestatzen du zozkatzeko. Zozketa egin dute dagoeneko eta zenbaki sariduna 894a izan da.

Gabonetan bi egitarau herrian

ERREDAKZIOA

Alegian Gabonetako egitaraua prestatu dute urtero bezala, baina honekin batera ere badute zer ospatu Alegian: Gaztetxearen XXI. urteurrena.

Eguberrietan beraz, Gaztetxean kontzertuak, festa eta antzerkia ere izango dira hitzaldiren batez gain. Eguberrietako egitarauaren baitan, berriz, musikari ere parte handia egin diote, baina baita antzerkiari eta kirolari ere. Izan ere, Xurdirin emanaldia izango da eta pilota topaketak ere bai. Pilota topaketa hauek larunbatean eta hilaren 30ean izango dira, eta finalak urtarilaren 3an egingo dituzte. Pilotari asko bilduko da bertan.

» EGITARAUAK

Gabonetakoa

- **Bihar**. 11:15ean Meza Nagusia Txintxarri Abesbatzak abestua.
- **Abenduak 27 eta 30**. 16:00etan Eguberrietako pilota topaketak.
- **Abenduak 28**. 12:15ean Txintxarri txiki eta Txintxarri Abesbatzen kontzertua.
- **Abenduak 29**. 17:30ean Xurdirin Gabonetako Kontzertua (frontoian).
- **Urtarrilak 1**. 11:15ean Meza kantatua Txintxarri abesbatzaren eskutik. Mandarinak eta intxaurrek botatzea meza eta gero.
- **Urtarrilak 3**. 16:00etan Egube-

ritako pilota topaketen finala frontoian.

- **Urtarrilak 5**. 11:00etan umeen jolasak plazan. Txokolatada. 19:00etan Errege kabalgada.

Gaztetxearena

- **Abenduak 27**. Play back-a. Ondoren, *Txapa hotsa ta burundie*. DJ festa izango da. Gauean izango da Gaztetxean.
- **Abenduak 29**. Juantxo Agirre-ren eskutik (Arantzadi) Amaiurko gazteluari buruzko hitzaldia.
- **Urtarrilak 4**. Alproja taldearen *Gemika* antzezlan. Arratsaldean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Ate joka antzezlanaren irudia. FERNANDO DE LA HERA

Galartzak eta Usabiagak 'Ate joka' taularatuko dute

Villabona » Komedia arina den antzezlan horretan, Sara Cozar izango dute ondoan; elkarbizitza da obraren ardatza.

ERREDAKZIOA

Gurea aretoan antzerkirako txanda izango da etzi, hilaren 26an. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrek eta Sara Cozar aktore beasaindarrak *Ate joka* antzezlan taularatuko dute. Emaldia 22:30ean izango da eta sarrerak zortzi euro balioko du, sei euro gazte txartela duenarentzat.

Bi aktore tolosarrak erraz mugitzen diren generokoa da antzezlan, komedia arinekoa. Bikoteen arteko elkarbizitza da obraren ardatza. Baita elkarbizitza horretan lagun onena sartzen denean. Komedia entretenigarri horren zuzendaria da Begoña Bilbao eta bertsoaren egilea Ritxi Lizartza da.

Galartzak eta Usabiagak aurretik egin dute batera lan. *Erreleboa* eta *Bota patsa!* lanetan aritu dira. Kasu horietan biak bakarrik agertzen zirentzula gainean. Oraingo honetan Sara Cozar aktorea izango dute ondoan. Aldaketak aldatuta, umoreak zeresan handia izaten jarraitzen du.

Balantze «ona» egin dute Naziotasun Jardunaldiei buruz

Villabona » Erakusketa eta hiru hitzaldi antolatu zituzten, euskal selekzioari, nortasun ikurrei eta euskarari buruz.

I. GARCIA

Aurreko astean Naziotasun Jardunaldiak antolatu zituen Villabona Bai Euskal Herriari herri ekimenak. Antolatzaileek balantze «ona» egin dute antolatu zituzten ekitaldien inguruan. Naziotasuna ardatz zuen gai ezberdinei buruzko informazioa ematen zuten panelen erakusketa ikusgai izan zen eta horrez gain hiru hitzaldi egin zituzten.

Gaurkotasan handiko gaiaren inguruan izan zen lehenengo hitzaldia. Euskal selekzioa izan zen hizpide eta horretarako Mikel Labaka futbolaria eta Egoitz Askasibar ESAITEko kidea aritu ziren. Euskadi edo Euskal Herria izena jartzearen eztabaidaren gainetik, kirolariak zazpi herrialdeetako selekzio bat eta federazio bat osatzearen borondate falta salatzen dutela azaldu zuten. 55 lagun izan ziren hitzaldian eta eskualdeko hainbat kirolari bat egin zuten Euskal Herriak bere selekzioa izateko manifestua idatzi duten kirolariekin.

Bigarrengo hitzaldian nortasun ikurrak aztertu zituzten Iñaki Egan historialariak eta Mikel Luloaga Bai Euskal Herriari ekimeneko ki-deak. Egañak ikurren inguruko



Erakusketa panelez osatuta zegoen eta hainbat gai jorratzen zituen. I.G.

historia azaldu zuen eta Luloaga egun ikurriñak jasotzen dituen «erasoak» aipatu zituen, bai Espainiako bandera «inposatuz», bai Nafarroan ikurriña ez dutelako uzten jartzen Ikurren Legea dela eta.

Hirugarren hitzaldian euskara izan zen gaia eta Inaxio Agirre euskaltzalea eta Igone Lamarin EHeko kidea aritu ziren. Euskal Herri euskaldun bat izateko egungo hizkuntza politika aldatu beharra dagoela azaldu zuten.

Manifestazioa Bilbon

Bilbon hilaren 27an manifestazioa egingo dute *Nazio bat, selekzio bat, federazio bat* lelopean. 17:30ean hasiko da Aita Donostiatik. Aiztondotik autobusa antolatu da Bilborajateko. Izena ohiko lekuetan eman daiteke edo 943 69 34 33 zenbakian.

Etxeko berora



» Herrira begira

Asier Arzallus
Saskibaloijokalaria

Bi asteren ondoren hementxe nau berriz, hitz gutxi batzutan Coruña nore bizitzaz berri ematuko. Egie esan kirol arloan gauze ezta asko aldatu azken alditik. Betiko martxan seitzin dula esan ditteke, hau da, etxen irabazi ta kanpoan galdu. Sevillako Cajasolen kontra zen aurreneko partidue. Arerio zuzenak zien ta beraz partiduo oso garrantzitsue zen biezitat. Partiduo gor baten ondoren irabaztea lortu giñun ta bearrezkoa zen aurrea pausotiki bat eman giñun sailkapenen.

Hurrengo partidue Plascencia Extremaduran kontra giñun, ta hortxe joan giñen autobuse hartute munduko ilusio guzikin. Beño oaingo hontan oso talde onakin topatu giñen ta partiduo hasieratik bukaera arte ez giñun zeregiñik euki markagailun aurre hartzeko.

Gaurko artikulu hau berezie da netzat, argitaratzen deneako Leitzan eonen naiz (beste okerrik ezpada) ta nere etxen irakurri ahal izango dot aurreneko aldiz. Eguberrik hortxe dauzkeu ta jende gehienak bezela guk ebai gure oportxoak dauzkeu, hilen 20etik 27ra. Asetxo bat da beño oso ongi etorriko da pixkato bat deskonektatu ta berriz *pilak* kargatuta bueltatzeko. Urte guzie kanpoan pasatzen den oso gustagarrie da zure jendekin eun berezi hoik pasatzea. Familiokoan elkartu, launekin parranda batzuk bota, ta aspaldi ikusi gabekoakin eon, hoi-xe da eun hotan itten dena gehien bat.

2008 urteri aio esateko garaie heldu zaiu laxter, 2009ri ongi etorrie ematuko. Ze eskatu urte berri-ri? Kirolari bezela, osasune eskatuko diot, garrantzitsuna baita, ta esaten den bezela gero gerokoak...

Besteik gabe, aurrez aurre esateko aukera eztauketentzat, jai zoriantsu opa dizkizuet. Urte zaharra modu onen bukatu ta berrie obeki hasi. Ongi pasa!



- ELEKTRIZITATE INSTALAKUNTZAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- LANTEGIETAKO KONPONKETAK
- ARGINDAR KUADROK

Apaiç-Erreka, 5
20400 IBARRA

Bulegoa Tel. 943 67 58 78 - 639 72 42 60
Tallerra Tel. 639 72 42 61

Bertsos
Ibarrako Belabieta polikiroldegian, arratseko 17:30e

abenduak 28
Igandea

Gai jartzaile
Mikel Agirrezabala "Mixer"

Bertsolariak
Amaia Agirre
Andoni Egaña
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Xebastian Lizaso
Iker Zubeldia

SARRERAK AURREZ 8 € - BERTAN 10 €
IBARRA: Zubaurte, Alabi, Damon txokog eta Lurdes Iburuendia
TOLOSA: Denak eta Raku, ANOETA: Itzuli, VILLABONA: Itzazi.

XI. elkartasun krosa
san silvestre

distantziak

| | |
|-------------------------------------|--------|
| 15:30h benjaminak | 800 m |
| 16:00h alebinak | 1600 m |
| 16:30h infantak | 2900 m |
| 16:30h nagusiak - nesak eta mutilak | 5050 m |

sariak

16:30h benjamin, alebin eta infantak kamisetak edo karpetak denentzat, eta garaikurrak...

17:30h nagusiak eta beteranoak, afariak, garaikurrak, polikiroldegiko bonoak eta 2 kirol-medikuntza azterketa

izenematea

Abenduaren 15etik aurrera, ARALAR KIROLAK dendan.
Eta egun berean ZERKAUSIAN.
Helduak aurrez 5 euro, egunean 8 euro (oparia: kamiseta lehenengo 300entzat)
Haurrak DOHAN

abenduak 31
arratsaldeko
15:30etan
ZERKAUSIAN

Elkartasun kross honetan jasoko den dirua, Guabas errekararen inguruko proiektu bultzatzeko erabiliko da, beraz Kojonbiara bidaliko da, Honetarako, diru bilketa egingo da egun berean

ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR

PAGOLA
ERAIKVNTZAK, S.L.

Izaskun Bidea, 7 behea • 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80

Laburrak

Itxaso Leunda eta Patxi Urizar, txapelak

KIROLAK ● Aurreko larunbatean egin zen Euskal Herriko duatlo eta triatloio gala. Bertan EAEko zirkuituko sariak banatu zituzten. Triatloian Itsaso Leunda hernialdearra izan da txapelak eta duatloian Patxi Urizar billabonatarra izan da lehenengo postua eskuratu duena.

Rekondo eta Otaegi, II. Mailako Txapelketan

KIROLAK ● II. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketaren finala igande honetan, hilaren 28an, jokatu dute Arbizon (Nafarroa). 13:00etan hasiko da saioa eta eskualdeko bi aizkolaria ariko dira lehen txapelketan: Jon Rekondo leizarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra. Hauekin batera ondoko aizkolaria ariko dira: Jexumari Lasa (Legorreta, Gipuzkoa), Jose Angel Zubiaga (Meoio, Araba), Fausto Mugertza (Mutriku, Gipuzkoa) eta Luisuari Belarra (Doneztebe, Nafarroa).

Zesta-puntako Urtezahar txapelketa Beotibarren

TOLOSA ● Tolosako Beotibar Zesta-Punta elkarteak antolatuta, hilaren 26tik urtarilaren 4a bitartean Urtetzahar Txapelketa jokatu dute Beotibar pilotalekuan. Euskal Herriko, Ipar eta Hegoaldeko, zesta-puntista gazte onenak, infantilak eta kadeteak, ariko dira deman aurtengo Eguberri egunetan. Txapelketa etzi, hilaren 26an, 10:00etan hasiko da eta lau partidak jokatu dira, infantil mailan. 17:00etatik aurrera, beste lau, kadete mailan. Ostiralean ere goiz eta arratsaldean izango dira partidak. Baita larunbatean ere. Urtarilaren 2an goizean izango dira partidak, lau, kadete mailan eta larunbatean, finalurrekoak, 10:00etan hasita. Azkenik, igandean, urtarilak 4, finalak jokatu dituzte, 11:00etan hasita.

Berezitasunak ditu aurtengo 25 urte egingo dituen Urte Zaharreko krosak

Villabona-Zizurkil »

Zunbeltz eta Urkamendi elkarteek antolatzen dute proba; aurtengo Villabonakoa izango da abiapuntua.

IMANOL GARCIA

Villabonako Zunbeltz elkarteak eta Zizurkilgo Urkamendi elkarteak antolatzen duten Urte Zaharreko krosa berezia izango da aurtengo, 25. aldian beteko baita hilaren 31n egingo denak. Horregatik, aurtengoan berezitasun batzuk izango ditu. Horiez gain, antolatzaileek nabarmendu dute izen-ematea doan den «bakarra» dela.

Aurtengoan, beraz, gauza berezi bezala, parte-hartzaileei opari bana emango zaie. Horrez gain, txokolatea banatuko dute probaren ondoren, bai parte-hartu dutenei, bai ikustera eta animatzera doazenei. Bestalde, urteroko sariez gain, irabazleei eta lehenengo herritarrei, bai emakumezkoetan bai gizonezkoetan, talasoterapia saio bat jasotzeko txartela eta bazkaria edo afaria emango zaio.

Aurtengo abian jarri dute beste ekimen bat krosaren webgune berezia da eta bere helbidea www.picasaweb.google.es/urtezaharkrosa.



Urte Zaharreko krosa antolatzen duten Zunbeltz eta Urkamendi elkarteak. I. GARCIA

casaweb.google.es/urtezaharkrosa da. Bertan aurreko krosak ar- gazkiak ikusgai daude (oraingoz azken lau urtetakoak) eta aurtengoaren argazkiak ere sartuko dituzte.

Berezitasunaz gain, aipatu behar da aurtengo Zunbeltz elkarteak dagokiola abiapuntua eta helmuga izatea. Guztira zazpi maila izango dira: benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak, nagusiak eta beterranoak. Benjaminak 16:00etan abiatuko dira eta 800

metro egingo dituzte. Alebinak 16:10ean hasiko dira eta 1,6 kilometro egingo dituzte. Infantilak eta kadeteak 16:28ean abiatu eta 3,5 kilometro egingo dituzte. Jubenilak

16:30ean abiatu eta 5,25 kilometro egingo dituzte. Nagusiak eta beterranoak ere 16:30ean hasiko dira eta 7 kilometro korritu beharko dituzte.

Laiier

TABERNA

Gosariak eta musika ona

Arostegieta • 943 675 119 • TOLOSA

PENTSIOTARAKO AURREIKUSPEN PLANAK

FELIXEN PLANA

Abantaila izarrak:

- Opariak, Travel Club Puntuak edo Super 55 Puntuak.
- Desgrabazioa zure Errenta aitortzearen.
- Gordailu Konbinatuak.

AURREIKUSPEN PLAN BERMATUA

zure ekarpenaren **%100** ÷ **%15**eko balio-handitzea 2014-03-15

Gubernak UTS %2,89/Getxoko UTS %2,76

Harpidetzat egileko epea: 2009ko urtarilaren 14 arte edo 40 milioi euroko gehienezko kopua bete arte. Berme-epea: 2009ko urtarilaren 15etik 2014ko martxoaren 15era.

ERRENTAGARRITASUN BERMATUA

txokoa h

5 sarrera pare zozketan emanaldi bakoitzerako!

irabazleak:

Abenduak 27
Larunbata • 18:00etan
Ibarako
Belabieta kiroldegian

- Tere Larrarte (Ibarra)
- Sonia Sanz (Tolosa)
- Ebaristo Elduaien (Tolosa)
- Harkaitz Lizartza (Ibarra)
- Iñigo Martin (Tolosa)

irabazleak:

Abenduak 29
Astelehena • 17:30ean
Alegiako frontoian

- Milagros Iturrioz (Irura)
- Manoli Jauregi (Alegia)
- Ana Goikoetxea (Irura)
- Karmen Iraeta (Tolosa)
- Ernesto Lasa (Irura)

HITZAren harpideduntzat abantailak Sarrerak leihatilan bertan.

Sarrera pare zozketan!

BRUESA GBC

Unicaja Malaga

IGANDEA

ABENDUAK 28-12:30

ILLUNBE

irabazlea: ● Arantxa Zinkunegi (Tolosa)

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan.

2 sarrera pare zozketan!

Bertso-saioa

Igandea • Abenduak 28 • 17:30ean
Ibarako Belabieta kiroldegian

irabazleak:
Iker Telletxea Tarragona (Ibarra)
Garbifne Otegi Zabaleta (Alegia)

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan.

Martxan jarri dute, 'Piztu itxaropena' lelopean sahararrei laguntzeko janari bilketa; urtarrilaren 31era arte izango da arroza, pasta, azukrea, lekaleak, hegaluzea, sardinak eta konpresak uzteko aukera, udaletxeetan, supermerkatuetan edota Merkatu Txikian.

Guztion laguntza beharrezkoa dute

INIGO TERRADILLOS

Beste urte batez, abian da Sahararen aldeko euskal karabana, *Piztu itxaropena* lelopean. Sahararen aldeko elkarteak eta Polisarioaren Euskal Autonomia Elkarteak ordezkariek antolatutako ekimena da, eta eskualdean Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi elkarteak bultzatzen du. Aljeriako Tindufhiariaren ondoan dauden saharar errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko janari bilketa egitea da ekimen honen helburua, eta urtarrilaren 31era arte izango da horretarako aukera.

Urtetik urtera egoera gordina goa bizi dute sahararrek, eta horregatik, Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideek dioten bezala, «inoiz baino beharrezkoagoa dute gure laguntza». Azukrea, pasta, lekaleak, hegaluzea eta sardinak oliotan, arroza eta konpresak izango dira aurten bilduko dituzten produktuak.

Hauek uzteko lekuak ohikoak izango dira: herri gehienetako udaletxeetan; eskoletan; Tolosako Eroski, Consumer eta BM supermerkatuetan; Merkatu txikiak irauten duen denboran Tolosako Kultur Etxean eta urtarrilaren 10ean eta 24ean, 11:00etatik



Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideak *Piztu itxaropena* kanpainaren aurkezpena egiten. I. T.

14:00etara, Trianguloan elkarteak kideek jarriko duten txokoa.

10.000 kilo biltzeko erronka

Urtero bezala, eskualdeko Sahararen aldeko elkarteak erronka berri bati heldu diola azaldu du. «Aurreko urtean jasotako kopurua berdindu nahi dugu behintzat, beraz, gutxienez 10.000 kilo jasotzea da aurten jarri dugun helburua». Hala, biltzen doazen kiloak ikustarazteko, aurrekoetan bezala, kamioimetroa jarriko dute Kultur Etxean.

Elkarteak kideek Tolosaldeko biltzanle guztiak proiektu honetan

parte har hartzea gonbidatzen dituzte, «bakoitzak kilo bat emanez gutxienez 10.000 kiloko erronka errez beteko dugulako». Halaber eskerrak eman nahi dizkie guztiei aurrez.

Sahararako bidean

Urtarrilaren 31era arte bildutakoa gainerako eskualdeetakoarekin bateratu eta saharar errefuxiatuen kanpalekuetara bidaliko dute otsailean kamioietan. Horretarako, bigarren eskuko kamioiak erosi behar izaten dituzte eta eskualdeko udaletxe guztiei eta diruz lagundu nahi duten guztiei, dei egin

nahi die Tolosaldea Sahararekin elkarteak. Euskadiko Kutxako 3035 0080 94 0800054177 kontu korronte zenbakian egin dezake nahi duen herritar orok diru laguntza.

Egutegiak salgai

Bestalde, Euskal Elkarte Koordinakundeak Saharari buruzko 2009ko egutegia egin du, eta salgai jarri dute, ateratzen den dirua errefuxiatuen kanpalekuetarako izango delarik. Eskualdean bada erosteko aukera, Tolosaldea Sahararekin elkarteekin harremanetan jarrita, edota Merkatu Txikian.

33 URTE LUZATU DEN AMESGAIZTOA

Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideek azaldu bezala, «33 urte luze igaro dira Marokok Sahara hartu zuenetik, 33 urte luze igaro dira Espainiak Sahara saldu zuenetik eta 33 urte luze dira 200.000 saharar Algeriak utzitako basamortu zatian bizi direnetik». Orduetik, bertan bizi diren errefuxiatuek kanpo laguntza behar izaten dute egunerokotasunari aurre egiteko.

1975etik ACNUR, Nazio Batuak, ECHO eta PAM bezalako erakundeek lekaleak, irina, esnea, kontserbak... bidaltzen dizkiete baina, «hitzartutakoaren %15a ez dute betetzen eta azken denboraldian bidaliko duten laguntza %40an jeitsiko dutela adierazi dute inongo azalpenik eman gabe».

Bestalde, errefuxiatuen kanpalekuetan egindako ikerketa baten arabera, 5 urte baino gutxiago dituzten haurrak behar dutena baino elikagai gutxiago jasotzen dute; haur horien eta haurrak izateko adina duten emakumeen % 61ak eta haurdun dauden emakumeen %66ak anemia du.

Beraz, ikusten denez, urtetik urtera egoera okertzen ari da, gure laguntza ezinbestekoa dutelarik.

Etzi irekiko ditu ateak Merkatu Txikiak

Tolosa » Oraindik ere badago aukera materiala uzteko; Kultur Etxean irekitzeko egunetik aurrera egin daiteke.

ERREDAKZIOA

Etzi Laskorain ikastolak antolatu duen elkartasunezko Merkatu Txikiako produktuak erosten hasteko aukera izango da urtarrilaren 6ra arte. *Eutsi elkartasunari* lelopean egingo dute eta erakusketak eta salmenta Kultur Etxean izango da. Goizez, 11:00etatik

13:00etara bitarte irekiko dute eta arratsaldez, berriz, 17:00etatik 20:00etara.

Aurten bi helburu lortu nahi dituzte; alde batetik, «Indiako Iparrmendebaldeko Gujarat estatuko tribuen bizi kalitatea hobetzeko asmotan, 2000 urtean Subir herrian hasi zen proiektuari bultzada emateko», azaldu duten bezala. Horretarako, ikasle ohi baten eta Ibarratik Misio Taldearen laguntza jasoko dute.

Bestetik, arazo psikiko eta fisiokoak dituzten Sahararako haurrentzako Auserd-en dagoen eskolari emango diete laguntza jasotako di-



Aurreko urteetan bezala, jende ugari pasako da Kultur Etxean kokaturiko Merkatu Txikitik. E. EZEBIZA

ruarekin, «behar duten material pedagogikoa eskuratzeko». Kasu honetan Tolosaldea Sahararekin elkartearen laguntza izango dute ikastolakoek.

Urtero bezala, jostailuak, egoera onean dauden jantziak, koadroak, liburuak, puzzleak... aurkituko dituzte bertaratzen den erostekoei, eta guztiak baldintza egokian.

Materiala uzteko aukera

Etzi, Merkatu Txikia zabaltzen dutenean, materialen bat uzteko asmoa duenak, zuzenean Kultur

Etxera bertara eraman dezake. Honengatik, erostekoei eguneroko aukerak ematean, Merkatu Txikia antolatzen, proiektu desberdinei eta lurralde anitzei laguntzeko. Beti emaitzarekin pozik geratu dira Laskoraingoak. Aurten ere, beste lurralde batzuk laguntzeaz gain, bertako ikasleekin honakoa landu nahi izan dute: «Gizarte justuago bat eraikitzearen beharra ikusi arazi nahi izan diegu», dio arduradunetako batek. Horrez gain, kontsumo arduratsuari ere garrantzia eman diote.

Diruz lagundu nahi izanez gero ere badago aukera oraindik, dirua honako kontu korrontera bidertuz: 2101 0081 1900 0421 2098 (Kutxa).

«Gizarte justu baten alde»

Dagoneko 13 urte daramatzate laguntza ematen, Merkatu Txikia antolatzen, proiektu desberdinei eta lurralde anitzei laguntzeko. Beti emaitzarekin pozik geratu dira Laskoraingoak. Aurten ere, beste lurralde batzuk laguntzeaz gain, bertako ikasleekin honakoa landu nahi izan dute: «Gizarte justuago bat eraikitzearen beharra ikusi arazi nahi izan diegu», dio arduradunetako batek. Horrez gain, kontsumo arduratsuari ere garrantzia eman diote.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Xurdinekin Gabonetan

Kultura » Gabonetan kontzertua eskainiko du Xurdinek Ibarra eta Alegian, oraingo honetan gainera lagun berriekin etorriko da.

ERREDAKZIOA

Sointek-en eskutik Xurdinek Gabonetako kontzertua eskainiko du Ibarra eta Alegian. Oraingo honetan, iratxo urdina bere ohiko la-

gunekin eta Tolosa eta Ordiziako gimnastika erritmikako taldeko haurrekin etorriko da.

Xurdinen Gabonetako kontzertua hilaren 27an eta 29an ikusteko



Xurdin, ohiko lagun ez gain, lagun berriekin etorriko da Gabonetan. HITZA

» EMANALDIAK

■ **Alegia.** Astelehenean, hilaren 29an, 17:30ean, frontoian. Sarre-rak erosteko aukera kiroldegian bertan egongo da.

■ **Ibarra.** Larunbatean, hilaren 27an, 18:00etan, Belabieta kiroldegian. Sarre-rak ondorengo lekue-tan erosi ahal izango dira: Tolosa-ko Bide Bide tabernan, Raku taber-nan, Korreo kaleko Multifamili dendan eta Beotibar ondoko txu-rrerian.

aukera egongo da gure eskualde-an. Sarre-rak alde zuzenetik 6 euro-tan erosi ahal izango dira, eta ber-tan 8 euro ordaindu beharko dira.

Gabonetako kontzertua

Ordubeteko iraupena izango duen ikuskizunean 70 gimnasta inguru ariko dira koreografiak dantzatzen eta Gabonetako kantuak abesten. Xurdinen kantuak ere ez dira faltako, hori bai, moldaketa batzuk edukiko dituztela azaldu dute Sointek-eko kideek: «Gabo-netako abestiak kontatuko dituzte, ez da antzezlan bat izango, nahiz eta istorio batzuk ere kontatuko di-ren. Saioaren amaieran, Xurdin eta bere lagunak haurrengana ger-turatuko dira, argazkiak eta kontu txikiak esateko».

Gimnastika erritmikoko taldearen eta Xurdinen arteko elkarlana ikusi nahi duenak, Ibarra eta Ale-gian edukiko du horretarako auke-ra paregabea. Hala eta guztiz ere, gure eskualdetik kanpo emanaldi ugari eskainiko dituzte Eguberri-tan, besteak beste, Lazkaoan, Le-zon, Orion, Berriobeitin eta urta-rrilaren 3an Ordizian.

«Eskerrak ematen dizkiegu gimnasiako haur eta gurasoei»

SONIA EZKERRA » Sointek Produzkoietako kidea

Gabonetan ere lana egitea tokatu zaio Sonia Ezkerrari (1979, Tolo-sa), Sointek Produzkoietako kide-ari. Esku artean darabilten *Gorringo Lakuaren Misterioak* Gabone-tan atsedenaldira bat hartu duen arren, Xurdin ez da istorio baka-rreko iratxo. Sonia Ezkerrarekin 2008az eta 2009az hitz egitean, Haizeder, Xurdinen laguna, elka-rrizketara batu da.

'Xurdinen Gabonetako kontzertua' elkarlanean antolatuz duze gimnastika erritmikoko kideekin. Nondik sortu zen ideia edo aukera hori?

Gimnastika erritmikoko entrena-tzailea, Arantxa Aristeo, Xur-dinen koreografiak egiten aritzen da. Hori alde batetik, bestetik, Xur-dineko aktoreak kasualitatez gim-nastika erritmikoko talde nagusi-ko kideak dira. Hauek lehiakete-tan kompetitzen dute. Bi datu hauek kontuan hartzen baditugu eta Gimnastika Erritmika taldeak Gabonetan jaialdia antolatzen duela gehitzen badiogu, nahas-men honetatik aurten ideia hau bururatu zitzaigun, elkarlanean *Xurdinen Gabonetako kontzertua* egitea. Horrela sortu zen ideia hau. **Eskualdeko emanaldiez gain, kanpoan ere egingo dituzue. Guz-tiak joango al zarete kanpora?**

Gimnastikako taldeak 70 bat haur elkartuko dira emanaldi hauetara. Eskualdekoetara eta kanpoetara. Honek esfortzu handia eska-tzen du, batez ere gurasoentzat. Ondorioz, benetan eskerrak eman nahi dizkiegu hauei. Noski, Xurdi-nekin ohol-tza gainera igoko diren haurrak ere ezin ditugu ahaztu, hauei ere eskerrak eman beharre-an aurkitzen gara. Hala eta guztiz ere, gurasoen lana azpimarratu nahi dugu, ez baita erraza emanal-dietara autoz gaur hona eta bihar hara joatea.

Abestiez gain, istorioen bat ere kontatuko duzue?

Haizederrek kontatzen ditu nor-malean ipuin guztiak, eta oraingo-an ere kontatuko ditu. Adibidez, haurrei Gabonak nolakoak diren eta zergatik ospatzen diren azal-duko die. Aipatu behar dut, Gabo-netako atsedenaldiraren ondoren, *Xurdinen Gorringo Lakuaren Mis-terioa*-rekin jarraituko dugula 2009. urtean.

Haizeder uke honetan zure ondoan dagoela ikusten du. Kaixo Haizeder, ondorengo galdera zuzentzat da. Ea, gonbidatu itzazu Xur-dinen Gabonetako kontzertura haurrak.

Zatozte, zatozte gurekin gure Ga-bonak ikustera!

Punta puntako bertso saioa igandean 17:30ean

Ibarra » Bartolaren Batzordeak, herriko hainbat talderen laguntzaz, sei bertsolari handi bilduko ditu Belabieta kiroldegian.

ASIER IMAZ

Bartolaren Batzordeak lanean jarraitzen duela azaldu dute bi astez behin elkartzan jarraitzen duten ibartarrek. Horren lekuko, hilaren 28an, igandean, antolatutako punta-puntako bertso saioa.

Ibarra Belabieta kiroldegian, 17:30ean, sei bertsolari handi elkartuko dira igandean: Amaia Agirre, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Xebastian Lizaso eta Iker Zubeldia.

Gaiak eta «xirikatzaileak»

Sei bertsolari hauek xirikatzera ibartar bat igoko da ohol-tza gaine-ra. Herriko Pototxotx bertso esko-lako kidea da bera, Mikel Agirreza-bala, *Mixer*. Izan ere, bertso saioa Bartolaren Batzordeak antolatzen



Belabietan 6 bertsolari handi elkartuko dira igandean: Agirre, Egaña, Lujanbio, Arzallus, Lizaso eta Zubeldia. HITZA

baldin badu ere, laguntzaile modu-an Pototxotx bertso eskola aurkitzen da. Herriko bertsolariak, gaiak jartzeaz gain, saiorako hainbat ezusteko prestatzen ari omen dira.

Azkenik, alde zuzenetik sarre-rak erosi nahi dituenak 8 eurotan izan-go dituela aipatu. Hala eta guztiz ere, egunean bertan, Belabieta kiroldegian, sarre-rak 10 eurotan erosteko aukera egongo da.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Lekunberrin, lau lo-gela, 104 m², lehenengo pixua, be-rogailluarekin. 636 17 16 24.

■ **Etxebizitza.** Etxe bat alokatzen da Tolosa erdialdean. Bi gela dauzka, erdi amueblatuak. Berritua dago, igogailuarekin. Leku eguzki-txuan. 650 euro hilean. Interesatuek deitu 656 73 60 56 zenbaki-ra.



12°
2°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EGUZKIA
EGUZKIA
9°
2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Musika Bandaren Egu-berri kontzertua Zerkausion 12:00etan, eta Eguberri kalejira Gorriti plazatik 20:00etan.

Deialdiak

■ **Lizartza.** Eskualdeko herri gehienetan gaur Olentzero eta Mari Domingiren bisita izango da, eta kantuan ariko dira herritarrek egun osoan. Lizartzaren kasuan, Goizez eta arratsaldez irtengo dira kantuan. Goizean, 09:00etan joango dira haur eta gazteak baserri berrira, eta arratsaldean, herrian zehar, ibiliko dira, haurrak 16:00etatik aurrera, eta gazteak eta helduak 19:00etatik aurrera.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenen Immigrazio Sailak literatur lehiaketa antolatu du *Emakumeen kontribuzioa migrazio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat.

■ **Tolosaldea.** Abian da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Aurten, arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak ari dira biltzen, udaletxeetan eta supermerkatuetan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Lore Amenabar irurarrak Arrasateko Akordeoi Txapelketa entzutetsuan txapela jantzi berri du infantil mailan; iaz azpitxapelduna izan zen.

Aurtengoan txapeldun

IMANOL GARCIA

Lehiaketara saio on bat egiteko asmoarekin joan zen eta txapela jantzita itzuli zen Lore Amenabar irurarra, Loatzo musika eskolako ikaslea. Arrasateko Akordeoi Lehiaketa entzutesuan, infantil mailan, lehenengo postua lortu zuen. 13 urte arteko mailan eskuratu du, beraz, txapela Amenabarrek. Aurten bete ditu 13 eta iaz, urtebete gutxiago zituela, bigarren postua lortu zuen irurarrak.

«Pozik» dago egindako lorpenarekin akordeoi-jotzaile gaztea. Lehiaketan bost obra jo zituen. Horietako bat, nahitaezkoa zen partaide guztientzat: *Bulgarischer Tanz*. Amenabarrek aukeratu zituen beste lauak: *Suite 6*, *Arabesques*, *Amalur* eta *Adios Nonino*. Urduri ekin zion lehiaketari, baina segituan hasi zen gozatzen eta gus-tura aritu zen emanaldian. Jende dexente izan zen lehiaketa entzuten, tartean epaimahaia, baina daurean aritzeak ez dio eraginik egiten irurarrari. «Etxean jo nuen bezala» atera zitzaien saioa txapeldun gazteari.

Gurasoen eta irakaslearen laguntza

Sei urte daramazki akordeoia jotzen Amenabarrek. Ez zuen zaila izan instrumentua aukeratzekoan. Izan ere, bere bigurasoek akor-



Lore Amenabar, Adunako elizan, Loatzoko ikasleen emanaldiaren ondoren. i.g.

deioa jotzen dute ere. Lehiaketarako prestatzen asko lagundu diote gurasoek. «Laguntza pila bat jaso dut», azaldu du irurarrak. Loatzoko irakaslearengandik ere jaso zuen laguntza lehiaketarako prestatzeko.

Ez da esfortzu txikia izan prestaketa guzti hori. Urtebete aritu da irurarra eguneroko bi orduz akordeoia jotzen Arrasaterako Lehiaketera aurkezteko. Hala ere, Amenabarrek «ondo» eraman du lan guzti hori egitea.

A Agurrak




Urte askoan!

Olaia Zubeldia Azkolain (Ibarra). Larunbatean 4 urte. Muxu haundi bat birramona Tereren partetik.



Urte askoan!

Amaia Olariaga Lasa. Gaur 6 urte. Zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Ane Haranburu. Eguberri egun batez, laztan ta igurtzi, turroia lasai jaten, ez zenigun utzi. Bihar 10 urte. Urte askoan Jokinen partetik.

Ordutegirik gabe eta mundu guztiari

90x1 tarifa berria. Ordaindu minutu bat, eta hitz egin 90 minutuz!

Edozein ordutan eta edozein operadorearekin

Konfiantza orain, eta eskuratu mugikor hauetako bati



NOKIA 5610
Mugikor erabilgarria, 90x1 tarifa berria.
"Jari zure banda berria!"

59€



NOKIA 5610
Mugikor erabilgarria, 90x1 tarifa berria.
"Duzue erabilgarria eta kolore berria!"

15€



San Francisco 19, Tolosa
Tel: 943 608 126

Bereziki Ofiziala

